



# XAPO

2004ko maiatza - 3. zenbakia


Goizuetako  
aldizkaria



«Maiatzeko Xapo,  
urte guztirako bapo!»



# ale honetan



# aurkibidea

- **Argitaratzailea:** Goizuetako kultur taldea eta Goizuetako Udalaren euskara zerbitzua
- **Diseinua:** Allende Arnaiz
- **Maketazioa:** eragin.com
- **Laguntzaileak:** Goizueta, Arano, Leitza eta Aresoko Euskara Zerbitzua

- Nafarroako Gobernua:
- Hezkuntza eta Kultura Departamentua
  - Unibertsitateetarako eta Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusia



- **4-5** ..... Goizuetako maketa
- **6-7** ..... Bai Euskarari Akordioa
- **8-11** ..... Elkarrizketa: Susana eta Antton. Goizuetarrak bidazti
- **12-13** ..... Herri baten heriotzaren kronika
- **14** ..... Inkesta
- **15** ..... Ezetz asmatu
- **16-18** ..... Leire Goikoetxeari elkarrizketa
- **19** ..... Txoko-sex
- **20-21** ..... Goizueta: zenbait jakingarri
- **22** ..... Nafarroan frantsesez...
- **25** ..... Hizkuntzen inguruko aurreiritziak eta topikoak
- **26-27** ..... Denborapasak
- **28** ..... Zure txanda



# Hirugarrena ere kalean da

**B**ai, XAPO aldizkariaren hirugarren zenbakia ere kalean da, eta berriz ere pozik egon behar dugu. Goizuetako aldizkaria dugu XAPO, eta bertako ukitua nabaria du. Ezin zitekeen bestela izan.

Hirugarren honetan denetik aurkituko duzue, aldizkari irekia egiten ahalegindu gara eta: elkarrizketak, kontakizunak, artikulatuak, inkestak, argazkiak, denborapasak, euskaren eta hizkuntzen ingurukoak, Goizuetari buruzko jakingarriak...


Aldizkari hau Goizuetako kultur taldeak eta euskara zerbitzuak egin eta bultzatzen dutenez, logikoa da kulturaren eta hizkuntzaren ikuspegia bertan garrantzitsua izatea. Gure ustez, behintzat, Goizuetak Goizueta izaten jarraituko badu, ezinbestean eutsi beharko dio sendo bere hizkuntzari (baita bere hizkera propioari ere), eta bere nortasunari. Garrantzitsua da herrian zerbitzu minimoak izatea, jakina, baina baita bizitasun kulturalari eta hizkuntzari eustea, ezta?

Aurreko aleetan Goizuetaren etorkizunari eta bizitasunari buruzko nolabaiteko kezka agertu zen, eta oraingoan ere gauza bera antzemanen duzue. Seinale, zalantzarik gabe, kezka hori edukitzeko nahikoa arra-

zoi badagoela. Askozaz atsegina litzateke sarrera honetan kontu arinak eta barregarriak soilik aipatzea, baina uste dugu beharrezkoa eta komenigarria dela goizuetarrei pentsatzeko eta hausnarketa egiteko dei bat egitea; herriaren etorkizunari buruzko hausnarketa, hain zuzen, eta herria bizi-bizirik mantentzeko egin beharreko guztiaz.

Eta serio samar jarri ondoren, beste dei bat ere egin dezagun, lehenago ere egin izan dugun bera: XAPO aldizkari irekia da, eta ekarpenak oso gustura hartuko genituzke. Ziur gaudu herrian badirela mila kontu jakingarri, denon interesekoak, eta Goizueta hobeki ezagutzen lagunduko digutenak. Horientzako tokia badago aldizkari honetan, eta horientzako toki aproposa dela uste dugu, gainera. Beraz, zer kontatua duzuen guztiak, anima zaitezte eta ekar itzazue lantxoak edo ideiak gure aldizkarira. Denok estimatuko dugu!

Horixe da, bada, sarrera honetan aipatu nahi genuena. Gure diskurtsoa baino interesgarriagoak izanen dira, zalantzarik gabe, hurrengo orrialdeotan aurkituko dituzuen idatzia eta argazkiak. Beraz, arretaz har ezazue aldizkaria, eta ahal duzuen guztia goza ezazue.



# Goizuetaako maketa

«Zergatik ez dugu hartzen proiektu bezala ikasturterako herriko maketa egitea?» Ikasturte hasieran egindako galdera honek emaitza onak, ez, OSO ONAK, eman ditu, gaur egun udaletxeko aretoan jarrita baitago maketa.

Galderari erantzuna ematen hasi ginenean lehendabizi pentsatu genuen lan interesgarria izan behar zuela, ikasleak «engantxatzeko», lotzeko modukoa. Eta zerbait ikasteko ere balioko ziena, nola ez, eskolako lana baitzen. Beraz, lau ideia buruan dantzan genituela sartu ginen gelara eta orduan DBHn zeuden ikasleei proposamena luzatu genien (2001-02); han genituen guri begira Ainhoa, Jon Ape-

zetxea, Jon Narbarte, Gorane (horiek zamarik handiena hartuko zuten, zaharrenak baitziren); baina ez ziren atzera begira gelditzeko modukoak beste taldekoak: Iban, Josu, Garazi, Ekaitz, Oinatz, Lorentxo eta Mikel.

«Beno», «Bale!», «Ez dago gaizki», «Moldatuko al gara? Eta gero erakusteko? Bai zera!» izan ziren entzun genituen lehen komentarioak. Baina tira, abiatu ginen!

Udaletxera jo genuen plano eskatzera, eta hura lortu bezain laster hasi genuen gure egin beharreko obra. Konturatzen ginen, ordea, ur handitan sartuak ginela, eta itxurantzeko zerbait egitekotan aditu baten laguntza eskatu genuen; Leitza aldera jo ge-

nuen eta han **Mikel Lizarragari** laguntza eskatu genion. Eta dena esan behar bada, gogoz hartu zuen lana eta lanaren motor bultzatzailea ere zerbait momentutan izan zen.

Planoaren azterketa egin ondoren materialen aukeraketa egin behar zen. Kortxo-plantxak erabiltzea erabaki genuen, genituen baldintzak kontuan hartuz. Planoekin «jolasten» hasi ginen: herria bi zatitan banatu, errekararen arabera eta behe-behetik hasita sestra-kurbak markatzen hasi ginen. Plantxak markatu genituen, erliebe formak kontuan hartuz. Garai honetan bota ziren gure eskolan izerdi tanta handienak, «ei, eta erreka, non egin duk?», «eta Aitasemegiko

baserriak?», «ez al huen hik egin behar», «eh, nik ez, hik»... horrelako kasuetan eskolako txirrina gure laguntzailea bihurtzen zen, bazterrak kiskali baino lehenago... Komunerako bixita ere aproposa zen barruko suak eta amorruak itzaltzeko.

Lan honek ikasturte osoa eman zigan, zeren nahiz eta lan erraza iruditu, bere gorabeherak zituen; sestrakurba bakoitzeko bi plantxa jarri behar ziren, eta ongi moztu eta ongi itsatsi. Haiek lanak! Bateren bat damutu ta ere... baina gero hasten ziren «hau udaletxean jarriko da, ezta?», «eta bestela non?»... Eta tira! Aurrera!

Honela beste ikasturte berri bati hasiera eman genion. Ikasturte berria, gogo handiak, ilusio berdinak berpiztuta... Baina gure maketa hor zegoen eta aurten amaiera eman behar zitzaion... Egin beharreko lanak berriro ere Mikel Lizarragak zehaztu zizkigun eta honela hasi ginen betelana egiten. Baina ez edozein betelana, ez: sestra-kurbatik sestra-kurbara zeuden koskak leunduz eta berdinduz eman genuen denboraldi bat. Itxura

ederra hartzen ari zen, eta gure animoak indartuz zihoazen, tarteka beste gelakoren bat etortzen zitzaigun eta haren harridura aurpegiak zerbait dotorea egiten ari ginela adierazten zigun; ez zen kortxo pilaketa, ez, nabari ziren mendiak, auzoak, bideak (beno, hauekin txinatarren lana hasi genuen). Txinatarrena, bai, zotzez josi baikenuen maketa. Zotz gorriak, bideak; berdeak, bidexkak; urdinak, errekek... Kolore guztietako makiltxoez beteta zegoen gure maketa. Hurra saltsa! «Ei, hori bidea al dun?» «ez, ez al duk ikusten erreka dela?» «Erreka, bai zera, nola eginen dik goitti?»....

Hurrengo lana margoketa lana izan zen; zotzak kendu, bideak markatu eta tarte horiek margotu. Oraindik ere txinatar lana!!! Etxeekin ere lanean ari ziren beste batzuk (lan kooperatiboa, denak lanean, zerbait egiten; denak denentzako). Etxeak zenbatu eta banatu. Kortxoz itxura eman eta ahal zenetan maketan itsatsi. Piskanaka denak kokatu. Goizuetako kolore aniztasuna ere nabaria geratu behar

zen, gure maketak udako egun eguzkitsu bateko koloreen islada izan behar zuen; berdea, ez da bat, asko baidzik (pinudiak, soroak, larra arteak, belar soroak... ). Azken ikutuak tresneria berezia eskatzen zuen eta Mikel Lizarragaren eskuetan utzi genuen.

«...orain zer?» «Ba, deus ez...» «Eta, ez zaio ezer gehiago egin behar?» ... Gure ilusioek helmuga joa zuten, maketa begi bistan genuen edozeini erakusteko moduan, edonon erakusteko moduan.

Lan itzel honen egileei omenaldi txiki bat egin behar zitzaie eta maketaren prozesua argazkitan eta bertotan jarri dugu; egileak lanean, egileak pozik, egileak, batzuetan mutur... baina egileak beraiek izan direnez gure omenaldi xumea beraientzat. Ah! Eta, noski, guztiek Teknologian oso nota onak!!

Gure gonbidapena luzatzen dizuegu: udaletxera joan zaitetzte eta disfruta ezazue egindakoarekin!

Mila Olano eta Ana Urdangarin



Paliluak jarrita pastela ote da? Koska askoxo ditu zerrautsaz beteta.

Jada bukatuxea dagola maketa bertan kokatu dute gure Goizueta.



Bai Euskarari Akordioaren bitartez herriko bizitzan euskara guztiz normalizatzeko pausuak eman nahi dira.



Herria erabat euskalduntzeko denon konpromisoa beharrezkoa da.

## BAI EUSKARARI AKORDIOA

Goizueta, Arano, Leitza eta Areso herri euskaldunak ditugu. Euskara osasuntsu dago bertan, baina osasuntsuago nahi dugu, bizkorrago, indartsuago. Zergatik? Oraindik ere ezin garelako gure herriotan % 100ean euskaraz bizi, oraindik ere erdara erabiltzera behartuta gaudelako zenbait egoeratan.

Eta zer egin dezakegu? Bada, gauza asko. Besteak beste, Euskal Herriko beste zenbait herritan abiatu den BAI EUSKARARI AKORDIOA gure herrietara ekarri. Horixe izan daiteke, gaur egun, euskararen erabileran aurrera egiteko egin dezakegun urratsik garrantzitsuenetako bat. Eta horixe egitea erabaki dugu.

Baina zer da BAI EUSKARARI AKORDIOA? Zertarako? Nori zuzentzen zaio? Nola egiten da? Galdera horiek erantzuten saiatuko gara, labur-labur, idatzitxo honetan.

### Zer da?

Euskararen aldeko konpromiso prozesua. Goizueta, Arano, Leitza eta Aresoko talde euskaltzaleek, udalek, euskara zerbitzuak eta Kontseiluak bultzatuta. Herriotako gizarte eragileak izanen ditu protagonista.

### Zertarako?

Herriko bizitza sozialean, gure eguneroko bizitzan, euskararen erabileran urrats edo pausu zehatzak emateko. Euskararen normalizazioari gure herriotan beste bultzada bat emateko.

### Nori zuzendua?

Herriko gizarte eragileei zuzendua: enpresak, elkarteak, taldeak, erakundeak, negozioak, tailerrak, dendak...

### Nola?

Herriko eragile guztiei (enpresa, elkarte, komertzio...) akordioa egiteko gonbitea egingen zaie. Ondoren, gonbitea onartzen dutenekin, euskararen normalizazioan urratsak egiteko konpromisoak zehaztuko dira. Konpromisoak hartzen dituenak BAI EUSKARARI ZIURTAGIRIA eskuratuko du.

## BAI EUSKARARI GOIZUETAN

Aurreko idatzian azaldu dugu, labur-labur, BAI EUSKARARI zer den. Testu hori Goizuetan, Arano, Leitza eta Aresoko etxe guztietan banatutako idatzia da, garrantzitsua iruditu baitzitzaigun herritar guztiak jakitea ekimen hori zer den. XAPO aldizkaria ere toki aproposa iruditu zaigu horren inguruan hitz egiteko, eta argibideetan pixka bat gehiago sartzeko. Beraz, honatx beste zenbait ideia, haien osagarri:

BAI EUSKARARI AKORDIOA ETA KONPROMISO PROZESUA deitzen diogu ekimen honi, eta bi hitz horietan biltzen du bere mamia:

a) Akordioa: borondatezkoa delako, eta euskararen normalizazioaren gainean adostasuna erakusten duelako.

b) Konpromisoa: aurrera egiteko konpromisoa bilatzen dugulako, urrats errealak eta eraginkorrak egiteko konpromisoa.

Beste batzuetan ere egin izan dira euskararen aldeko ekimenak, guztiak ere beharrezkoak eta txalagarriak. Euskararen alde askotan hitz egin dugu. Baina oraingoan, «esan» baino gehiago, «egin» egin nahi dugu, azken batean horixe baita garrantzitsuena. Hitzak baino gehiago, ekintzak nahi ditugu oraingoan: eguneroko bizitzan eginen ditugun urratsak.

Eta urrats horiek, kasu honetan, ez ditu administrazioak edo «ez dakit nork» eginen. Guk denok egin ditzakegu: elkarte, talde, enpresa, denda, ostatu, tailer... BAI EUSKARARI AKORDIOAREN protagonistak, hain



Herriko denda, ostatu, kefetegi, tailer eta establezimendu guztiei proposatuko zaie Bai Euskarari Akordioa.

zuzen ere, horiek guztiak dira, gu guztiok gara.

Eta zer egin dezakegu? Bada, norberaren abiapuntua kontuan hartuta, euskararen erabileran nola aurreratu dezakegun ikusi, eta horretarako urratsak eman. Norberak ikusiko du zein den bere gaurko egoera, eta noraino irits daitekeen. Hori ikusi ondoren, haraino iristeko behar diren konpromisoak har ditzake; urratsak, jakina, era askotakoak izan litezke: nominalak euskaratu, estatutuak itzuli, errotulua euskaraz jarri, testuak edo bestelakoak euskaraz jarri (prezioen zerrenda, oharrak, fakturak, albaranak...), erantzungailua euskaraz jarri, eta abar.

Eta konpromisoak hartzen dituenak BAI EUSKARARI ziurtagiria jasoko du. Ziurtagiria zer den? Erraza da azaltzen. Ziurtagiriak euskararekiko konpromisoa erakusten du jendaurrean. Konpromiso errealak eta zehaztua, betetzen den konpromisoa alegia.

Konpromiso horiek zehazteko, adosteko, eta aukeratzen laguntzeko Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluaren izenean teknikari bat joan da (Ainara Narbarte goizuetarra) herriko denda, tailer, enpresak... bisitatzen. Bakoitzaren egoera aztertzen ondoren, eta horretarako borondatea egonez gero, akordioa sinatuko da eta zer pausu emanen diren idatziz jasoko da. Horren truke, esan bezala, ziurtagiria banatuko da eta Kontseiluak aitortuko du eragile horrek hartu duen konpromisoa.

Horixe duzue, labur esanda, BAI EUSKARARI AKORDIOA ekimena. Goizuetan ere herri euskalduna da, zailtzarrik gabe, baina hemen ere bada zer eginga. Merezi du, gure ustez, eta horregatik goizuetar guztiak parte hartzera animatu nahi zaituztegu. Saiatu gabe, noski, ez dago aurreraterik, baina saiatuz gero asko da lor daitekeena.



Emakumeak Hanoi inguruan (Vietnam).



Ouarzazate (Morocco-Marrokién herria).

# Etxetik mundura, mundutik etxera

## Goizuetarrak bidazti

Susana Tato eta Antton Rodriguezekin hizketan

**B**idaiatzea bizitzeko modu bat da askorentzat. Gaurko elkarrizketatuentzat, behintzat, zaletasun handia da zalantzarik gabe. Bere bizitzako denboraren zati bat munduko bazterrak ezagutzen eman dute, eta toki interesgarri eta eder askoak ezagutu dituzte. Baina bidaia ez da tokialdatze hutsa, hori baino gehiago ere bada: bizipenak, sentsazioak, jendearekin harremana, ezagutza... Horien berri emateko egin dugu elkarrizketatxo hau, eta baita bidaiatzearen inguruan goizuetarren arreta erakartzeko ere; izan ere, ikastea beti izanen da ona, eta bidaiatzea ikasteko beste modu bat da.

### • Bidaia, zer da zuentzat?

Etxetik atera eta toki bakoitzeko gau-

za guztietaz gozatzea: jendea, hizkuntzak, ohiturak, janariak, usainak, historia, bizimodua, argia, ea.; beti alderdi positiboena bilatuz eta errespetoz.

Bidaia, urteko errutina hausteko era osasungarri bat da.

Bidaia apostu handi bat da, desafio bat, eta horrela zirrargarria da, nahiz eta espazioan edo denboran bidaia motza izan.

Guretzat, bidaiak pertsonak dira, eta hauek ematen diote bidaiari benetako dimentsioa eta zentzua.


### • Nola gustatzen zaizue bidaiatzea?

Bidaiatzeko era asko daude: batzuk agentzien bidez antolatzen dute haien bidaia, beste batzuek berek antolatzen dute beren aldetik, eta beste ba-



Basamortu zuria (Sahara). Egipto-Libia.





Iguassú (Argentina-Brasil).



Eman Jomeini plaza. Isfahan (Iran-Persia).

tzuk liburuak irakurriz bidaiatzen dute.

Bakoitzak nahi duen bezala antolatu ditzake bere oporrak.

Gure bidaiak, guk antolatzen ditugu urtean zehar, liburu eta atlasez baliatuz: etxean amestu eta amets hori errealitate bihurtzen saiatzen gara.

Gure bizimoduak ez digu momentuz uzten nahi genukeen bidaia egiten. Hau da, hilabete bateko bidaiaren orde, pare bat urteko bidaia egitea gusatuko litzaiguke munduan zehar.

### • Nola hasi zineten bidaiatzen?

Liburuak irakurriz sartu zitzaigun bidaiaren txirrinta hori.

Liburu artean piztu izan da gure pasioa lurralde bat ezagutzeko, kultura bat bizitzeko, paraje eder bat ikusteko edo argi berezi bat sentitzeko.

Horrela, egun batean gure lehendabiziko bidaia antolatzen ikusi genuen geure burua eta hortik aurrera ez gara gelditu; eta horrela segitzea espero dugu urte askoan.

### • Nolako tokitara gustatzen zaizue joatea?

Edozein tokitara. Normalean, «hirugarren mundu»a deitzen dioten herrialdeetara gehienbat: Afrika, Asia, Hego Amerika, Erdi Amerika.

Han, oraindik aurkitu dezakezu zein den biziaren zentzua eta zein di-

ren gauza garrantzitsuenak, eta jendearen inozentzia jator eta freskoa.

### • Zein da orain arte ikusi duzuen lekurik ederrena?

Hainbeste daude! Ez gara ausartzen toki bat aukeratzera, leku zoragarri asko daude munduan eta.

Ez dakigu. Adibidez, Petra (Jordania); Palmira eta Damasco (Siria); TajMahal, Rajastán eta Himalaya (India); Halong (Vietnam); Essaouira (Maroko); Isfahan eta Bam (Iran); Istanbul eta Egea kosta (Turkia); Atitlan (Guatemala); Txiapas (Mexiko); Belizeko kosta; Basamortu zuria eta Sinai (Egipto); Bangkok (Tailandia); Masai Mara (Kenia); Gorongoro eta



Petra (Jordania).



Taj Mahal. Agra (India).

Zanzibar (Tanzania); Lençois Marenhenses, Ouro Preto eta Rio (Brasil); Iguazu (Argentina), e.a

Zer zaila den toki bat bereiztea. Askoz gehiago badaude noski. Baina ezin sartu denak lerro gutxi batzuetan.

### • Eta egin duzuen bidaiarik interesgarriena?

Denak izan dira interesgarriak, baina badaude bi bidaiak beti gure bihotzean egongo direnak. Lehendabizi egin genuena, orain 8 urte, Indiara egin genuena; eta bestea orain 6 urte egini-koa, Iranera. Baina hor daude Egipto, Vietnam, Turkia, Zanzibar, e.a.

### • Zergatik?

#### INDIA:

Europatik kanpo elkarrekin egin genuen lehendabiziko bidaiak luzea izan zen eta gainera beste mundu batera, erabat desberdina.

Indiak ez du ezer ikustekorik guri saltzen diguten irudiarekin: pobrezia, gaitzak, arriskua, ea.

Noski, Indian pobrezia dago, baina ez miseria, beste zenbait tokitan bezala (Europa, Ipar Amerika).

Han jendeak eguna bizitzen du eta

munduan den herrialde *autosufiziente* bakarra da. Jateko izanez gero, bizitzan ez dute beste gauzarik behar pozik bizitzeko, hori oso garbi ikusi genuen.

Indian ezagutu genuen jendearen jatorrasuna eta irriparra; Tibetetik botatako tibetar paketsuak eta han hartuak; budismoa eta hinduismoaren lasaitasuna; bertako janari pikanteak; Himalayaren indarra eta edertasuna; TajMahalaren amodiozko histori zoragarria; e.a.

Oso bidaiak betegarria eta interesgarria izan zen eta bertara bueltatzeko asmoa dugu.

#### IRAN:

Iranen indarra bere jendearengan dago.

Erljio musulmanaren barruan, Iraniarrak txiitak dira eta horien baldintzetan, atzerritar bat etxean ongi hartzea sartzan da (lotarako tokia, janaria, garraioa, e.a), haien ospitalitate osoa eskainiz. Hori praktikan jartzen dute eta etxean bezala sentitu ginen Iranen.

Hala ere, seguruenik, ez da izan munduan Iran bezelako herririk, topiko guztien eta ezezagutzaren biktima. Bere izena inbobilismoarekin elkartua dago eta hemen azkeneko 50 urte-

etan hiru iraultza izan dira.

Iranen egunak azkar joan ziren, hango jendeaz gozatuz, monumentuak, mendiak, basamortuak, janaria, herriak (Persak, Kurdoak, Azariak, Armenioak, Balutsik, Arabeak, e.a.).

Betidanik sufritu duen herria da (gerrak, bai arabiar eta turkoaren kontra, ehundaka lur-ikara, islamen integrismo gogorra), eta hala ere hango jendea beti beso zabal dago zuri ongiatorria emateko edo zuk zure herriari buruz zer kontatuko. Beti ikasteko eta entzuteko prest.

Zoragarria persen lurraldea eta antzineko persen semeak.

### • Palestinarren herrian izan zarete. Nola ikusi zenuten hura?

Orain dela 7 urte izan ginen Jordania, Siria eta Israelek Palestinarekin lapurtutako «Altos del Golan» lurraldean. Orduan egoera nahiko kaxkarra zen, baina ziur orain askoz gordinagoa dela.

Orduan ez genion itxura onik hartzen lurralde hari. Bazirudien edozein momentutan dena lehertuko zela. Hala ere, toki gutxi izango dira munduan historikoki horrelako indarrarekin, eta han dauden monumentuekin.

Bertan sortu ziren munduko hiru



Chichicastenangoko merkatua (Guatemala).



Ikasle batzuk. Teheran (Iran-Persia).

erlijio monoteistak (kristaua, judua eta islama), eta han sortu ziren lehen-dabiziko zibilizazioak. Damasco izan zen munduko lehen hiria.

## • Hego-Amerika, Erdialdeko Amerika, Afrika, Hego-ekialdeko Asia?

Afrikak naturaren indarra dauka. Han naturak jartzen ditu baldintzak. Parajeak beste lekutan baino ikaragarriagoak dira, gaitzak gogorragoak; guk Europan dugun erosotasunik ez dago. Lurralde gogorra da, baina droga bat bezala da, beti bueltatzeko ilusioarekin gaude bertako musikak eta jende indartsuak berriro gozatzeko asmoz. Han zentzu guztiak lanean jartzen dituzu. Pena da Afrikarekin egiten duguna.

Amerikaz zer esan; Brasilez adibidez, Caipirinhak, samba, nahasketa, emakume eta gizon ederrak, e.a. bakarrik ez dela. Ea orain daukaten lehendakariak Brasil behar den lekuan jartzen duen zeren oso herri interesgarria da nahasketa asko dagoelako,

bai Afrikatik eraman zituzten esklabuen ondorengoez, bai Europatik joan zirenen ondorengoez, eta bai bertako Amazoniako tribu desberdinek osaturikoa.

Eta zer esan Mexikoz, Guatemalaz edo Belizez; Caribeko pusketa politeanean daudela eta Atitlaneko sumendiek ikaragarria egiten dutela. Bertan ere gure bihotzaren zatitxo bat duten Txiapaseko anai-arrebak daude. Ahal duten moduan bizitzen. Han dena kolorea da, herria, ohiturak, erritmoa, baina baita ere pobrezia eta gobernuen indarkeria.

Eta Vietnam. Ez gara inoiz ahaztuko hango jende langileaz, gau eta egun lanean haien suntsitutako herria altxatzen. Hango lasaitasuna, eta Halon, inoiz ikusi dugun paraje zoragarriena. Pelikuletan baino askoz ederragoa da bertatik ikusita.

## • Eta zuen hurrengo proiektua?

Ez dugu gauza handirik pentsatu. Mongolia eta Etiopia hor daude gure

buruan, baina baita ere Indiara bueltatzea, pusketa ttiki bat bakarra ikusi genuen eta.

Ikusiko dugu lanak zenbat denbora uzten digun bidaia egiteko.

## • Zer esango zeniekete Goizuetako gazteei?

Euskal Herrian bereziki jende askok bidaiatzen du; beste lurralde batzuekin konparatuta, proportzioa oso altua da. Ingelesen, frantzesen eta italiarren parean gaude.

Goizuetako gazteei esango genieke aprobetxatzeko gaztaroko indarrak eta ilusioak bidaiatzeko, lurralde eta jende desberdinak ezagutzeko. Bidaiatzeak beste pertsonak eta beste herriak errespetatzen erakusten du.

Pena da atzerrian dituzten ohitura onak guk ez izatea, adibidez, «anglosajoiek» batxilergoa bukatu ondoren urtebete epea daukate bidaiatzeko unibertsitatean hasi bitartean.

Munduan zehar bidaiatzea da ezagutzen dugun eskola-unibertsitate hoberena. Animo!



# Herri baten heriotzaren kronika

**E**gun on Donostiako Herri Irratik, gaur asteazkena da, 2037ko apirilaren 19a, eta goizeko 10ak dira. Hemen hasten da gaurko.....» Iñakik ez zion jarraitzen utzi ia bera bezain zaharra zen radiotik ateratzen zen ahots goxoari. Etxetik ateratzeko prestatuta zegoen. Beraz, irratia itzali eta azkeneko hilabeteetako lagun hoberena, makila, hartu zuen eskuan.

Aurrerapen ederrak bazirela esan zioten medikuek belaunetik operatu zutenean, baina Iñaki ez zegoen gustora ebakuntzaren emaitzarekin. Oraindik 75 urte besterik ez zeuzkan arren, belauneko minaz gain, bihotzeko arazo txoren bat ere bazeukan, eta bi aste tik behin medikuarenera joaten zen. «Mekauen!! Bihar tokatzen zait Amaiarengana joatea», pentsatzen zuen Iñakik etxeko 12 eskailerak jeisten zituen bitartean. Astero-astero etortzen zen Amaia herrira kontsulta pasatzera, bera baitzen Goierreta herriko mediku ofiziala. 2029a arte medikua eta erizaina propioak bazituen Goierretak, baina biztanlegoa asko jeitsi zela arrazoituz, kendu egin zituen gobernuak.

Farmazia ere ingurutsu horretan itxi zen, eta Iñakiri Donostiatik ekartzen zizkion botikak bere alaba Anek. Ane hiri horretan bizi zen, eta ia larunbatero etortzen zen Goierretara bere bi seme-alabak hartuta. Egun horren zain egoten zen aitona aste osoan, oso harreman ona baitzuen bere bilobekin.

Iñakiren etxea herriko plazan bertan zegoen, eta esan liteke bera zela inguruko guztien artean itxurosoena. Plaza

ederra zuen Goierretak, baina itsusten joan zen urteak igaro ahalean. Udaltxea bera mende hasieran konpondu zutenetik ukitzeke zegoen eta pintura kapatxo bat hartuko zukeen gustora. Plazan zegoen Beti Ona elkartearen egoitza ere, etxe polit askoa gainera. Beti Onako sortzaileetako zen Iñaki, eta askotan gogoratzen zituen elkarteak 200 bazkideetik gora zeuzkan garaiak. Orain 40ren bat izanen zituen eta ia beti hutsa egoten zen. Jende gehiago elkartzen zen 2003an inauguratutako zaharren egoitzan.

Etxetik atera eta plazari begirada bat luzatu zion Iñakik, eta inor ez zegoela konturatu zen. Kontuak esateko lagunik ez zuenez, Kale Nagusia goitik



behera zeharkatu ondoren, urte batzuk lehenago arte baratzez eta hainbat eraikuntzaz beterik egoten zen parajera jo zuen. Baratzei dagokienez, oraindik partzelatxoren bat edo beste itxura onean zeuden, apirilari dagokion bezala alegia, baina gehienetan aspaldi samar aitzurrarik sartu ez zela aisa nabaritzen zen, Iñaki bera baino belar handiagoz estalirik baitzegoen lurra.

Aipatutako eraikuntzen egoera baratzena baino okerragoa zen. Garai batean herritar askoren lanpostu izanda-



ko pabiloiak erdi eroriak zeuden, eta hauen ondoko eskolak eta frontoi ederra ere askoz garai hobeak izanak ziztuztela ikusten zen argi eta garbi. Iñakik erlojuari begiratu zion eskolaren aurretik igarotzerakoan, eta hamaikak eta hogezi zirela ikusi zuen. Adin ezberdineko bospasei neska-mutiko zeuden patioan. Adinean aurrera zihoalako edo, Iñaki oso nostalgikoa zen, eta berehala bururatu zitzaizkion eskola eta bere inguruak haurren algara eta oihu alaiez beteak egoten ziren urte haiek.

Zaharren egoitzan bezperan Antton lagunak esandakoaz oroitu zen Iñaki orduan, hurrengo kurtsuan Goierretako haurrak ondoko herriko eskolara eramane zituztela alegia, herriko eskola ixten zuelako gobernuak.

Bihotzean min hartzen zuen Iñakik herriaren egungo egoera eta bera gazteagoa zenekoa konparatzen hasten zen bakoitzean. «Kontu alairen bat pentsatu behar diat» esan zion bere buruari Iñakik, baina zer? «A bai, gaur ositrala duk eta bihar alaba Ane etorriko duk Donostiatik bere bi deabrutxoekin!».

Berehala aurpegia alaitu zitzaion. Bazekien nahiko janaria ekarriko zuela alabak, baina astebururako zerbait

erosi behar zuela eta plazarako bidea hartu zuen Iñakik. Hamabiak jotzen ari zen ezkildorreko erlojua. Oraindik soinu ederra zeukaten ezkilek, herri guztian aisa aditzeko hainakoa. Iñaki plazara ailegatu zenerako han zegoen «Comestibles Martintxo»ren furgoneta ederra. Astean hirutan etortzen zen herrira Martintxo urnietarra bere Renault-a gainezka beteta. Goierretarrek ez zuten keitzeko motiborik eskatzen zen guztia ateratzen baitzuen Martintxok bere furgonetatik. Beno, arazotxo bat bazen, ogia eta egunkaria ere berak ekartzen zituenez, ogi gogorarekin eta periodiko zahar samarrekin konformatu behar izaten zuten astean lau egunetan. Orain dela 8 urte itxi zuten herriko azkeneko janari-denda, baina Iñakik 5 ezagutu zituen irekiak, guztiak ongi lana eginez gainera.

Tabernekin antzeko zerbait gertatu zen. Hamaika-hamabi izatetik gaur egungo bakarrera igaro zen Goierreta. Hori bai, abuztuaren 15ean Beti Ona elkarreak ere taberna bezala funtzionatzen zuen, oraindik jende puxka biltzen baitzen herriko fiestetako egun bakar horretan. Iñakik jasoak zituen etxean orain dela urte batzuetako Amabirjinetako jaien programak, gutxienez 6 egun festak, egunero herria jendez gainezka, eta tabernak eta txoznak gau eta egun irekiak egoten ziren urte haietakoak alegia.

Bat eta bestea erosiz, azkenean poltsa bete zion Martintxok Iñakiri. Ordaindu eta hurrengo astelehena arteko agurra luzatu zion saltzaileari. Etxerantz zihoala bere alabarekin oroitu zen Iñaki. Seguru zegoen igande honetan ere asteroko erretolikarekin hasiko zitzaiola Ane: «Aita, goazen gurekin bizitzera Donostiara». Eta erantzuna zalantzarik gabeko ezezkoa: «Ez, ez. Nik hil arte Goierretan bizi nahi dut, Goierreta bera ez bazait hiltzen behintzat ni baino lehenago. Eta alabak ere betikoa esanen zion: «Beno atta, ez hasi igandero kontuarekin. Oraingo atsekabeak alper-alperrikakoak dira. Zergatik ez zenuten deus egin honelako herri zoragarri bat oraindik indartsu eta bizi-bizirik zegoen bitartean?»



# Euskalkiak eta euskara batua Goizuetan

**G**oizuetan euskararen egoera arrunt ona da, zorionez. Eta euskalkiarena baita ere? Egoera onean dagoela uste al duzu? Asko aldatu dela gure hitz egiteko modua? Gazteak eta helduak ezberdin mintzatzen gabela? Zer pentsatzen duzu Euskara Batuari buruz?

Hauen gisako galdera asko ditugu eta bakarren batzuei, bederen, erantzuna bilatu nahi diegu. Horretarako, zure laguntza behar dugu ordea, irakurle. Laguntzeko prest?

Segidan heldu diren galderari erantzun eta postetxeko buzoian utzi behar dira 2004ko maiatzaren 20a baino lehen. Sobrean «Kultur Taldea» paratu (egilearen izenik ez dugu behar) eta seilurik gabe iritsiko da guregana.

Denon parte hartzea behar dugu, bestela emaitza ez baita egiazkoa izanen. Eta pentsatzen duzuen adierazi, lasai ederrean, bukaeran ez baitago ebaluaziorik.

Aldez aurretik, milesker!!

**OHARRA:** Batzuetan, erantzun bat baino gehiago aukeratu daiteke. Egin gurutze bat dagokion lekuan:

**- Adina:**

- 0-15
- 16- 30
- 31- 45
- 46- 60
- 60 urtetik gotti

**- Sexua:**

- Gizona
- Emakumea

**- Zein da zure ikasketa maila?**

.....

**- Nongoa?**

- Goizuetakoa eta bertan bizi naiz
- Goizuetakoa eta beste herri batean bizi naiz. Non?.....
- Beste herri batekoa, baina Goizuetan bizi naiz. Nongoa?.....
- Besterik.....

**INNKEXXXTA!!**

**1- Zein da ume-denboran zure etxean erabiltzen zen hizkuntza?**

- euskara
- espainola
- beste bat.....

**2- Eskolan euskaraz ikasi duzu?**

- bai, dena
- asignatura batzuk
- deus ez. Dena espainolez zen

**3- Euskaraz hitz egiteko ohitura no-rekin duzu?**

- gertukoa den jendearekin: lagunekin, familiarekin...
- euskaraz dakiten guztiekin
- inorekin ez

**4- Batuan badakizu?**

- irakurtzen
- idazten
- mintzatzen
- ez dut erabiltzen, baina ulertzen dut
- deus ez

**5- Norekin hitz egiten duzu Euskara Batuan?**

- herrikoekin
- beste euskalki bat erabiltzen dutenekin
- Goizuetatik kanpo bizi diren euskaldunekin
- euskara ikasten ari direnekin
- inorekin ez, nire hizkera erabiltzen dut beti
- denekin

**6- Euskara Batua beharrezkoa dela uste al duzu?**

- bai
  - ez
- Zergatik?.....
- .....
- .....

**7- Euskalkiari kalte egiten diola uste al duzu?**

- bai
- ez

Zergatik?.....

.....

**8- Eroso sentitzen al zara Euskara Batuarekin?**

- bai, eroso sentitzen naiz mintzatu, irakurri edo entzutean
- bai, baina ez naiz eroso sentitzen mintzatzean
- ez, urrutikoa, hotza iruditzen zait. Hala ere, erabiltzen dut
- ez, urrutikoa, hotza iruditzen zait eta ez dut erabiltzen

**9- Zure ustez, noiz erabili behar da €B?**

.....

**10- Eta euskalkia?**

.....

**11- Gure herriko hizkera asko aldatu dela uste al duzu? Ezberdin hitz egiten al dute Goizuetako gazte, heldu eta zaharrek?**

- bai, diferentzia nabaria da. Zein (azentua, hitzak, doinua...)?

.....

- diferentzia badago, baina gutxi. Zein?.....
- ez dago diferentzia nabaririk

**12- Orain, zure txanda da. Nahi al duzu beste galderarik egin? Edo galdetu ez dizugun zerbait kontatu? Hemen duzu ba horretarako aukera!**

.....



# ezetz asmatu

## EZETZ ASMATU

XAPO aldizkariko aurreko bi aleetan ere ariketa hau bera proposatu genizuen. Orduan asmatu ez zenutenek hirugarren aukera duzue honakoa. Hala ere, aurrekoetan inor ezagutu ez bazenuen, kezkatzen hasteko arrazoiak badituzue!

Urteek, egia da, itxuran aldateta batzuk eragiten dituzte. Adinak ez du barkatzen! Eta batzuetan nahi baino azkarrago zahartzen gara eta ez da denbora asko behar gure irudia dezente aldatzeko. Baina badira ezaugarri batzuk ezabatzen ez direnak: batzuetan gorpuzkera, bestetan begirada, aurpegiera...

Baina tira, hitz gutxiago eta goazen harira: argazki hauetan agertzen direnak ezagutzen dituzu? Denak? Ongi erreparatu eta ea guztiak ezagutzeko gauza zaren.

## PERTSONAIA EZKUTUA

Eta pertsonaia ezkutua nor da? Errazegi jarri al dugu? Edo zaila iruditzen zaizu? Ez duzula berehala asmatzen? Lasai, horregatik da, hain zuzen ere, atal hau «pertsonei ezkutua». Ustez, behintzat, pertsonaiaren irudia manipulatu egin dugu lehendabizikoan asma ez dezauden. Baina bigarrenean edo hirugarrenean asmatu behar ko zenuke. Hala ez bada ere, mesedez, ez etsi, eta segi pentsatzen eta begiratzen, asmatu arte.



# Leire Goikoetxea Eskudero

## Goizueta, Bilbo, Mexiko



**L**eire Goikoetxea, 24 urteko psikologo goizuetarra dugu. Goizuetan jaioa 1980ko maiatzaren 13an eta Goizuetan bizi dena. Goizuetako ikasketak bukatu ondoren, Donostiako Usandizaga institutuan ikasi zuen, eta handik Bilbo aldera joan zen, psikologia ikasketak burutzeko asmotan. Ikasketetako urte bat ere Mexikon egin zuen.

Jende gehienak ez bezala Leirek oso garbi zeukan ikasi nahi zuena. Zergatia ez ordea. Agian orain ikasketak egin ondoren bere burua analizatu eta aztertu izango du eta zergatia ere non-bait bilatuko zuen.

Gaur egun Master bat egiten ari da, «Familiako terapeuta», eta aldi berean abegi-etxe («centro de acogida» delakoa) baten ari da hezitzaile lanetan.

### • Zergatik hasi zinen psikologia ikasten?

8. mailatik (14 urtetatik), oso garbi neukan gauza bat zen. Zergatia ez dakit baina agian jendea ezagutzeko, nire burua hobeki ezagutzeko, gauza asko ulertzeko.

### • Goizueta, Donostia, Bilbo.

Bilbo batere ezagutu gabe gainera. Pisu batean sartu nintzen jende gehiagorekin. Lehenengo gaua oso txarra, negarra eta dena egin nuen. Ez nekien unibertsitatea non zegoen, ez nekien ezer; aldaketa handia zen niretzat, unibertsitatea...

Urteekin aldiz lagunak eginez joan nintzen, Bilbo ezagutu nuen eta nahiz eta hiri handia izan oso gustora egon naiz.

### • Ikasketak hasi ondoren sorpresarik bai? Gustukoa al zenuen zuk aukeratutako karrera hori? Denok baitakigu ez dela beti hala izaten.

Ikasketetako lehenengo urtean karrera ezagutzen hasten zara. Hasieran inork ez daki ongi zer den eta. Azken 2 urteetan espezializatu egiten zara, alegia, zure interesekoa den arlora jotzen duzu. Eta azken urtean gainera praktikak tokatzen zaizkigu. Nik praktikak «Cruzeseko» ospitalean egin nituen, «Módulo de salud mental» zelakoan. Psikiatra batekin aritu nintzen lanean. Goizero praktikak izaten nituen eta arratsaldez ikastera berriro ere.

### • Gurasoekin bizitzetik, bakarrik bizitzera, aldaketa handia zuretzat?

Bueno, bai. Goizuetan gurasoekin bizi nintzen eta Donostian ikasten nuenean ere herrira etortzen nintzen. 18 urterekin aldiz, pisu baten jarri nintzen Bilbon eta ezagutzen ez nuen jendearekin. Ikasketetako urte guztiak ez nituen jende berarekin egin, hasieratik bukaera-

### MOTZEAN:

- Oporretarako leku bat: Mexiko.
- Bizitzeko leku bat: Euskal Herria.
- Musikari edo abeslari bat: Joaquin Sabina.
- Kolore bat: Urdina.
- Irakurri duzun azken liburua: «Hija de la fortuna», Isabel Allenderena
- Film bat: «Te doy mis ojos»
- Mutilak, euskaldunak edo mexikarrak? EUSKALDUNAK
- Ikastea edo ikasitakoa praktikan jartzea: Ikastea.
- Non ez zenuen «piercing» bat egingo: Aurpegiari gehiago ez, eta segur aski beste toki horretan ere ez.
- Ligatzeko balio al du psikologia ikasi izanak? Psikologia ikasi izanak, lau tragok... denak balio du.



ra pisukideak aldatzen joan ziren. Azken kurtsoan 3 psikologo eta empresariales ikasten zuen lagunekin nengoen.

Aldaketa handia zen hasieran baina ohitzen joaten zara.

• **Bilbotik Mexikora, zergatik Mexiko?**


Egia esatera nahi baduzu, lagunengatik. Nire lagun taldetik bostek «Erasmus» programa bidez kanpora joateko intentzia zuten eta niri ere interesgarria iruditu zitzaidan. Programa honetan agertzen ziren herrialdeetatik Mexiko eta Italia nituen gustuko eta eskara, hauek batera joateko egin nuen. Gero aukera tokatu zitzaidan eta, nolabait, nire burua probatzea pentsatu nuen eta Mexikora joan nintzen, beste 3 lagunekin batera.

• **Orain, kontatu mesedez, Mexikon non egon zineten? Zer moduz?**

Lehen esan dudan bezala Bilbotik lau lagun joan ginen, hiru mutil eta ni. Hasieran erabaki genuen denak batera egongo ginela eta gero bakoitzak ikusiko zuela. Bertan familiekin egoteko programak daude eta guk lehenengo hilabeteetarako behintzat familia batekin egotera erabaki genuen, ez baike nuen ezer ezagutzen.

Mexiko oso hiri handia da, munduko handienetakoa da. Ni neska izanik eta akoso handia izaten denez lehenengo hilabetea kalera bakarrik atera gabe egon nintzen. Han bizitzen egon nintzen familiarekin oso tratua hartu nuen eta abuztutik abendu arte hauekin egon nintzen eta gero pisu batera pasa nintzen. Munduko leku ezberdinetako jendea geunden pisan, Puerto Rico, Madril, Venezuela, Bilbo eta noski Goizuetarra.

• **Ikasketetan aldaketa handia nabaritu al zenuen?**



Hemengo 3. mailan ematen diren gaiekin nolabaiteko lotura bilatu nahi izan nuen, gero hauek konbalidatu ahal izateko.

Unibertsitatea oso ona zen, fama handia duena. Hala ere unibertsitate oso elitista zen, jendea oso pijoia zen, aberatsen seme-alabak zirela oso nabaria zen. Oso jende superfiziala aurki zenezakeen. Adibidez nire adineko neskak (gehiengoa) ezkondu eta umeak ere zituztenak ziren eta hauek ikasten jarraitzeko motiboa zen gero ez konparatzeko beraiek baino klase baxuagoa zuten jendearekin, jendearen aurrean izen bat edukitzea. Hala eta guztiz ere intentzia gero gizonaren kontura bizitzeko zen. Lan egitea ez zegoen beraien planetan sartua.

• **Pentsatzen dut hizkerarekin ez zenuela inolako arazorik izango ez?**

Bueno ez, baino ikasi nuen guk erabiltzen ditugun esapide asko

ezin genituela erabili esanahi oso ezberdina zutelako. Hala ere edukatugoak dira mexikarrak. Pentsatu zer ongi moldatu nintzen azkenean azentua ere hartu nuen behintzat eta.

• **Janaria zer moduzkoa zen, hor bai ez zenuela antzik aurkituko?**

Hori bai ezetz, bueno hasieran niretzat denak gusto bera zuen, usain bera, pikante askorekin. Tortilla izeneko talo antzeko batekin jaten dute dena, baina gustoa ez du taloak bezalakoa. Lehenengo hilabetean ezin nuen janaria probatu eta nik pasta, arroza eta horrelakoak jaten nituen. Gero ohitu nintzen eta oso gustuko nuen bertako janaria.

Han kalean jatera oso merkea da, baino ezin da edonon jan, asko zaindu behar da janaria non erosi.

• **Dena ez zen ikastea izango ez?**

Ez, izan dugu denbora bidaiatzeko eta baita juerga ederrak botatzeko ere.

San Miguel Allende, Vera

«Mexikon pasatako urtea nire bizitzako urterik hobereana izan da, dudarik gabe. Kultura ezberdin bat ezagutzeko aukera izan nuen eta txoil enamoratu egin nintzen»





Cruz, Acapulco, Chiapas etab. ezagutzeko aukera izan dut, noski behin haraino iritsi ezker ezer ikusi gabe ez ginen etorriko.

• **Baloratzen hasi ezker nola azalduko zenue Mexikon pasatako urtea?**

Nire bizitzako urterik hoberena, du-darik gabe. Gehiena ikasi dudana, hobekien sentitu nintzena. Jaikitzen nintzen eta pozik sentitzen nintzen. Pentsatu nire etxetik unibertsitatera bi ordu eta erdiko bidaia nuen eta hala ere berdin zitzaidan. Ikasketetan oso gustura aritu nintzen. Inoiz ahaztuko ez ditudan lagun batzuk egin nituen. Kultura ezberdin bat ezagutzeko aukera izan nuen eta txoil enamoratu egin nintzen.

• **Momentu txar bat?**

Hemengoaz oroitzen nintzenean, bestela gehiena positiboa izan zen.

• **Mexikotik Bilbora berriz ere.**

Bai, ikasketak bukatzeko urte bat falta baitzitzaidan. Azkeneko urtea eta gogorrena. Berriro aldaketa eta urte hau gainera ikasteaz gain praktikak ere egin beharrak nituen. Lana eta ikasi.

• **Unibertsitatea bukatu eta zer? Lanean?**

Ba gero master bat egiten hasia naiz «Terapeuta familiar». Master hau hiru urtekoa da.

Unibertsitatea bukatzeko uda horretan hasi eta 3 hilabetez saltzaile lanetan aritu nintzen, abuztuan hasita. Gero kafetegia batean 6 bat hilabetez eta orain hezitzaile moduan ari naiz lanean.

Diputazioarentzat egiten dut lan asoziazio batean. Pisu batean egoten naiz 8tik 17 urte bitarteko umeak hezten. Ume hauek arazoak dituzten familietatik datoz eta diputazioak erabakitzen du guraso hauei haurrak kentzea, modu hobe batean hezteko. Hori egiteko arrazoiak asko izan daitezke, tratu txarrak, abandonoa, abusua... Gehienek izaten dituzte abandonua, abusu psikikoa eta fisikoa.

• **Zein da zuek hor betetzen duzuen papera?**

Bueno, ba gure lana da ume hauetaz arduratzea. Nik astean 2 edo 3 egun egiten dut lana, 24 orduko txandak izaten ditugu.

Guk ume horiekiko ditugun ardurak maila guztietakoak dira, ikasketetan, osasun aldetik, psikologikoki... Gehiena da haur horiei arau batzuk erakutsi eta barneraraztea; beraiek bizi izan dutena ulertzen laguntzea, oso zaila dena. Mundu gogor batean bizi izan direlako. Gure papera da famili «nor-



mal» batean gurasoak betetzen dutena. Baina paper hori egiten da jakinez ez zarela gurasoa, ezin da inplikazio maila hori hartu. Hezi egin behar ditugu, guraso izan gabe eta hori berak dakitela.

• **Loturarik ikusten al diozu egiten ari zaren masterra eta zure lanari?**

Bai, bai, oso lotuak daude. Famili baten arazoak ezagutzeko aukera dut haur horiek bizi izan dutenetik eta kontatzen dutenagatik. Ez da psikologo lana egitera zuzenean, baina oso lotua dago. Gainera nire nagusietako bat master hartako zuzendaria da eta horrek ere nolabait lotura bat sortzen du.

• **Zer iruditzen zaizu lana?**

Lana gogorra da, baina aldi berean jaso ere gauza asko egiten dira. Haur horiek izugarriko beharra dute maitasuna jasotzeko eta emateko. Lan horretan norbera sartzera ezinbestekoa da eta deskonektatzera oso zaila da, baina hala ere asko betetzen duen lana da.

• **Etxe horretan bizi izan duzun momenturik hunkigarriena.**

Haurrak lotara eramaten ditudanean, azkeneko ipuina irakurri eta musu bat ematerakoan.

• **Esperientzi txar bat.**

Haur hauek epaitegira joan beharra dutenean, beren gurasoen kontrako juzioetara eta ume hauei azaldu behar zaienean non dauden eta zergatik. Hori oso gogorra egiten da.

• **Psikologo kontsulta bat jarri ezker nor ez zenuen tratatuko?**

Jendeak askotan galdetzen du ea bortxatzaile edo hiltzailearen bat tratatuko nukeen, eta nire erantzuna beti berdina da, pertsona bezala sentitu eta ulertuko ez nuen norbait ezingo nuke terapian onartu. Ez eta familiakoren bat edo lagun bat. Azken hori aholkatzen digute ez egitea inpartziala izatea oso zaila baita kasu hauetan eta zuzen jokatzeko ez da erraza.

• **Etorkizunean zer egitea gustatuko litzazuke?**

Lehendabizi masterra bukatu eta gero ez nuke kanpora joateko ideia baztertuko, Hego Amerika aldera. Oso esperientzia ona eta baliagarria izango zela iruditzen zait. Hezitzaile bezala lan egitea ere gustatuko litzaidake (Terapeuta).

# Sexu segurua

**G**ezurra dirudi XXI. mendean gaudela. Nola da posible 2004. urtean orañdik ezusteko haurdunaldiak gertatzea! «Nola ba?» galdetuko dio lagunaren batek bere lagunaren neska haurdun dagoela uste dutela enteratu bezain laster. Besteak berriz, jolasean hasi zirela, eta bada-kizu, egoera ez hozteagatik, kondoirik gabe hasi zirela. Baina lasai, gero kanpoan korritu zenez, ez zegoela arriskurik. Eta gainera, hilerokoa bukatu berria zuela, eta orduan ezinezkoa zela neska haurdun geratzea. Baina posible da, zeren neska asko eta asko geratu izan dira haurdun modu horiek erabiltzeagatik.

Izan ere, bi modu horiek ez dira metodo antikontzeptiboak. Gaur egun, mota askotako antikontzeptiboak daude merkatuan. Zein den hobereña? Ezin esan dezakegu bat bestea baino hobea denik. Ezaugarri desberdinekin, egoera desberdinetarako pentsatuak dauden metodoak baitira. Horregatik, zuretzako egokiena dena aukeratu behar duzu. Baina hala ere, orañdik bada jendea enteratu ere egin ez dena eta **historiaurreko metodoak** erabiltzen jarraitzen duena; **metodo txapuzero eta alferrikakoak, arriskuz eta frustrazioz beterik daudenak: «martxa atrás» deiturikoa eta daten metodoa** (Ogino metodoa ere deitua). Goazen bada bi metodo txapuzero hauek zer diren esplikatzen.

«Martxa atrás» deiturikoa, nik uste ia populazioaren gehingoak badakie-la zertan datzan. Baina badaezpada: «martxa atrás» mutila bagina barnean

korritu beharrean, baginatik at egitean datza. Orduan, nola da posible haurdunaldiak gertatzea? Oso erraza da. Gizonezkoak -emakumezkoak bezala- berotzerakoan, lubrikatu egiten dira organo sexualak, eta mutilen kasuan, semena atera aurretik, likidotxo bat irteten zaie: likido horri, likido pre-seminala deitzen zaio. Nahiz eta likidotxo horrek inolako sentasiorik ez eragin, ez dago hori kontrolatzeko modurik, espero ez duzunean agertzen baita; eta hortxe-**likido pre-seminalan- ustekabeko espermatozoideak egon daitezke**. Eta horregatik etortzen dira gero sorpresak, eta disgustua noski. «Lasai, lasai» diote mutilek, kanpoan korrituko naizela. Baina neskak, ernatu!, zeren orain badakizue espermatozoideak edonon daudela. Badakizu, gomatxo bat jarri eta listo. Eta horrela, lasai egin dezakezue nahi duzuen guztia. Baina lehe-

nengo jarri, eta gero disfrutatu.

Beno, eta beste historiaurreko metodoa, daten bidezkoa da (Ogino metodoa ere deitua); hau da, emakumeak hilerokoa noiz daukan jakinda, zenbait egunetan erlazio sexualak saihestean datza. Hau erabiltzen dutenek diotenez, emakumeak hilerokoa eduki behar duen egun pare bat aurretik eta ondoren, ez dago haurdun geratzeko arriskurik. Eta hilerokoarekin zaudenean, ziurtasunez ezinezkoa dela haurdun geratzea. Eta egia da leku batzuetan horixe bera irakurri izan dugula. Baina ez zaitezte fida irakurtzen duzuen guztiarekin, ez baitu funtzionatzen. Zergatik? Ba emakumeak ez direlako makinak. Emakumeak pertsonak dira. Horregatik, milaka aldaketa gerta

dakizkioke bere bizitzan, hala nola, gaixotasunak, azterketak, bidaiak, infekzioak, kezkak, eta milaka gehiago. Eta horrek eragina du bere obulazioan, aurreratu edo atzeratu dezake-elarrik. Neskak, zenbat aldiz atzeratu zaizue hilerokoa? Askotan. Hori dela eta, ez da batere segurua daten arabe-ra antolatzea noiz oheratu behar duzuen elkarrekin; alde batetik, ez **dagoelako zikloko egun bakarrik haurdun gera ez zaitezkeenik**; eta bestalde, ez duelako batere erosoia izan behar, hilerokoa hilerokoaren zain egon behar izatea, ezin duzulako ziurtasunez jakin haurdun egongo zaren ala ez.

«Martxa atrás» eta Ogino, ezusteko haurdunaldiarengatik, etengabeko beldurra sortarazten duten metodoak dira. Gaur egun metodo seguru eta eraginkorrek dauzkagu. Hortaz, ez zaitzala ustekabean harrapa. Ez pentsa hori besteei gertatzen zaiela. Lehenik informatu. Eta gero disfrutatu. On egin!



# Goizueta

## zenbait jakingarri

**G**ure herria deskribatzeko mila modu izanen dira, ziur asko; nor berea izanen du. Hemen bildu duguna Jose Maria Jimenok emandako azalpena da, eta interesgarria delako jaso dugu Xapo aldizkarian. Zenbait datu ezagun eginen zaizkigu, beste batzuk, aldiz, berriak izanen dira guretzat.

Azalpen edo deskribaketa hau, aipatutako autorearen, Jimeno Jurio-*ren, Diccionario histórico de los municipios de Navarra* liburuan eta Nafarroako Gobernuak argitaratutako *Nafarroako toponimia eta mapagintza: Goizueta-Arano* bilduman aurki dezakegu. Hona ekarri dugun euskarazko bertsioa bigarren horretatik atera dugu.

### HONELA DIO TESTUAK:


**Kokapena:** Basaburua Barreneko hiri hau Iruñeko merinerriko ipar-mendebaleko muturrean dago, Gipuzkoari datxekiola. Herrigunea 155 m-ko altueran dago, Urumea ibaiaren bi aldeetan, eta mugapeko hegoaldean mila metrotik gora egiten duten mendi garaiek inguratuta (Loitzate, 1.038 m; Mandoegi, 1047 m).

J. Altadillek mugapearen azaleraren zabala azpimarratzen du (90,6 kilometro karratu). Hauek ditu mugakide: Oiartzun (IM), Lesaka (IE), Arantza (E), Zubie-

ta (HE), Labaien, Eratsun, Ezkurra (H), Leitza (HM), Berastegi (Gipuzkoa) (HM) eta Arano (M). Urumea ibaia da lurralde honetako urak bideratzen dituzten erreka mordoaren bilgunea. Haien artean Añarbe aipa daiteke, probintziaren iparraldeko muga xedatzen duena, eta haren adar Artikutza. Azken honekin bat egiten du Artiku-

tzako urtegiaren hornitzaile den Errobieta erreka. Hura 1962an sortu zen Donostia urez hornitzeko..

**Klima eta landaretza:** klima atlantiar epela du, temperatura eztiak eta euri ugariak bai, baina udan lehorterik ez duena. Bertako arbola espezieak hari dagozkie: pagoa eta haritza. Alabaina, oihanak be-



tetzen duen azaleran (7.309 Ha), basoberrietako pinuak (2.500 Ha) nagusi dira pagadi eta hariztien aldean. Askoz ere ttikiagoak dira bestelakoei emandako eremuak: larre naturalak (145 Ha) eta laborantza (106 Ha), batez ere bazkatarako (58 Ha).

**Ekonomia:** baso ustiapenak (pinua eta pagoa) 6.000 metro kubiko zur baino gehiago egiten du. Behi aziendak (262 buru), latxa arrazako ardi aziendak (4.836 buru) eta zerri aziendak beheiti egin dute joan den mendearen erdialdetik hona. Behor aziendak (144 buru), berriz, gora egin du (1998ko datuak. GEN)

Goizuetako betiko harremanak auzoko Gipuzkoarekin egin dira, Uru-meak irekitako bidearen bitartez. 1916an Iruñeko errepedea ireki zen Leitzan barrena, baina 67 kilometro horiek ez dituzte, bistan da, aipatu harremanak eragotzi ahal izan.

**Historia:** mugapean hainbat trikuharrri eta harrespil daude. Erdi aroan, hiri hau erregeren jaurreria izan zen eta Koroari petxak ordaintzen zizkion.

Mitxelena



*Goizuuieta* bertsio toponimikoa aurkitu zuen XII. mendeko bigarren erdialdeko agiri batean (AV). Ez ohi da agertzen sutondoan eta beramarrenen liburutetan. 1381ean Oñatiko jaunak hainbat eskubide zituen herrian eta Anizlarrean. Alderdi hori Artikutzan dago, eta hango mendiak Orreagako monastegiarenak ziren XIV. mendeko azken herenean. Printzesa Leonorrek herritarrek ordaintzen zuten petxa oparitu zien Kolegiatako prioreari eta kabiloari, baita pribilegioa eman ere goizuetarrek ez lurra landu ez egurrik bildu ahal izan ez zezaten herri inguruan eta Anizlarrean, Orreagako priorearen baimenik ez bazuten (1468). Errege Kolegiatak XIX. mendea arte atxiki zituen mendien jabetza eta Goizuetako parrokiaren gaineko patronatu eskubidea, izan ere, bertako bikarioak berak izendatzen baitzituen.

Gaztelarrek su eman zioten 1430ean, eta horren kariatz errege Joan II.ak hamar urtez salbuetsi zituen kuartelak ordaintzetik. Epe hori akitu zenean, salbuespena luzatu zuen dorrea eta gotorlekua eraikitzen laguntzeko (1440).

1800 urte inguruan, lau burdinola zeuden mugapean, 4.000 kintal bur-

dina ekoizten zutenak, baita kobrezko xaflak egiteko lanategia ere. Hiriak jarlekua zuen Gorteetan eta kuartelak eta alkabalak ordaintzetik salbuetsirik zegoen. Artean bere horretan zegoen Santa Maria Magdalenaren ospitalea. Hark su hartu zuen 1555ean, eta horren ondorioz, po-break ospitale ondoko «Madalena» elizan aterbetu zituzten, «basilica de Madelena» ere deitzen zitzaion horretan, alegia (1646).


1860ko Nomenklatoreak baserri hauen izenak dakartza hitzez hitz: Acorla, Aguerreta, Aitasenegui-alto, Aitasenegui-bajo, Alcainzuriáin, Alcaso, Alduncimborda, Articuza, Becotea, Belaco, Benaisoro, Berazcurren, Berdazio, Elama (burdinola), Erausna, Erevia, Ercasti, Errotazar, Espide, Ezaztondo, Gorostin, Gorranéa, Itzailturi, Iltzainaundía, Labecoborda, Larrazuri, Lárriz, Martinchonecoborda, Molino Nuevo, Molino Viejo, Olajandía, Pechiborda, Tartazu, Txarpa, Txemeneborda, Urrizti, eta horiez gain, Aldúncin jauregia (etxea eta aldi berean burdinola), San Antón (ermita eta baserria), Santa María Magdalena (ermita eta etxea) eta San Salvador (ermita).

Biztanle kopuruak ez du goraberarik izan mende honetan (1.1000dik 1.400 bitarte), beheitiko joera sumatzen bada ere 80 hamarkadan (1074, 1986an).

**HIZKUNTZA:** bertakoek «ia-ia euskaraz baizik ez dute egiten, hainbestearino non, askok, emakumeek batikbat, beste hizkuntzarik ez baitakite» (1920, Altadill, GPNV).



# Nafarroan frantsesez...



**E**uskal Herria anitza dela, azkenaldian noiznahi entzuten den esaldia da, eta ados nago. Esaldi honen atzean, ordea, interpretazio ugari egin litezkeela konturatzen naiz, izan ere ANITZA hitzak, plural, asko, ugari, aberatsa edota beste hainbat esanahi izan baititzake hizlari eta entzulearen arabera.

Nafarroan kokatuz, Iparraldeko mendi berde euritsuak eta Erriberako lautada lehorrak, aniztasuna ongi erakusten dute. Ihauteri jaiak eta udako herri festak, kolore, giza harreman eta kultur orgia zoragarriaren seinale dira. Baina euskal ohiturak, izakerak eta kastak pluraltasunaren barruan, bereziak bihurtzen gaituzte eta nik neuk behintzat pluraltasun hori errespetatuz beti ere, ez dut ahaztutzen zein den nere nortasuna eta jatorria.

Nafarroa anitza? Bai horixe!; Nafarroa aberatsa? dudarik gabe; gizartea plurala? bai bada, baina pertsona guztiak ez dut uste hain plural eta hain

irekiak direnik. Euskal Herrian daukela ukatzen dutenak gehiegi baitaude oraindik eta horrela dela ikusi nahi ez duten asko daude. Euskera, gure "Lengua Navarrorum"-a, zapaltzen ari direnak. Deuseztu nahian.

Niri, Mikel Laboaren ahotsa datorkit burura. Esaldi sueltokak dira. **Bat, herria goratzen arrotz baten gisa: "Gora Euskal Herria! frantsezez zio-la"; Besteak; Arrotz nahiak berriz herriaren hitzan "Gure hizkuntza ez da galduko... hori berexi dugu guk Euskal Herrian" ... "Frantsez eginak gira joan den aspaldian".** Hizkuntza eta Herria, Herria eta hizkuntza, Gauza bera izanik, ezin bereixi ordea.

Globalizazio garaian, kultura eta hizkuntza ezberdinak mundu osoan zabaldu eta ezagutaraztearen alde nago. Baina kontuz! Nafarroan UPN-ko kargudunek eta beste espagnolista batzuek darabilten doktrina oso arriskutsua baita. Ezin baita ahantzi non gauden. Ezin baita Euskal Herrian Frantsezez, Ingeleraz edo ta Txinoraz

dakiena laudorioz jantzi, euskeraz erantzi zer den ere ez dakien norbait.

Gure ama-hizkuntza Nafarroan indarberritu beharra dago. Bada garaia behingoz euskeraz jakitea, administrazio eta zerbitzu publikoko langile izateko ezinbestekoz jotzeko.

Baina bada garaia behingoz baita ere, euskeraz dakigunok ere, euskeraz mintzatzeko, euskeraz jarduteko, ezin sinistuan gelditu bainaiz gure kaleetan erderaz zenbat mintzaten garen ohartuta. Norberak hausnartu dezala.

Nolanahi ere, gogo eta kemenez ereindakoa, momentu gogorrenetan egindako negar malkoez ernaltzen dela dirudi eta Illunberriko guraso eta haurrek euskeraz ikasten jarduteko Arangoitiko ikastola berria izanen dute. BERRIA-k horrela zioen behintzat. Eskerrik asko goizuetar eta euskal herritar guztiei, denon artean lortu dugulakoan nago eta. Lanean eta bizitzen jarrai dezagun euskeraz, eguneroko jardunak emanen baititu orainean ezezik geroan ere fruituak.



# Hizkuntzen inguruko aurreiritziak eta topikoak

**P**ertsonak gara eta, noski, uste eta iritziek gobernatzen gaituzte. Bizitzako alor guztietan gertatzen da, zalantzarik gabe, eta baita hizkuntzen inguruan ere. Alegia, hizkuntzen gaineko aurreiritzi edo pre-juizio ugari daukagu, eta askotan ez gara horretaz ohartzen. Uste okerrak, gainera, erraz zabaltzen dira eta gero ez da erraza izaten horien kontra egitea, eta, bestalde, horien atzean askotan ideologia eta interes jakinak egoten dira.

Artikulu honetan hizkuntzen inguruko aurreiritzi eta topikoez hitz egiten dugu. Oso ohikoa da hizkuntzei adjektibo batzuk eranstea: moderno/primitiboa, handia/txikia, sinplea/konplexua... Baina adjektibo horiek ez dute inolako oinarri zientifikorik, usteak besterik ez dira, zorrotasun zientifikorik gabeak, eta kalte

handia egiten dute; izan ere, hizkuntza askori prestigioa kentzen diote, eta prestigiorik ezak, beste zenbait faktoreekin batera, eskubideak ukatu eta urratzea ere ekar dezake.

Esan bezala, idatzi honetan aurreiritzi horietako batzuk begiratu eta aztertuko ditugu. Zerrenda luze batetik hautatutako batzuk dira, zorritzarrez askoz gehiago baitira aipa litezkeenak.

## Hizkuntza zailak eta errazak

Ez dago horrelakorik, gure ustez. Hizkuntza bat zailagoa edo errazagoa izan daiteke guretzat, gure abiapuntuaren arabera. Katalan batentzat, adibidez, errazagoa da gaztelania poloniera baino. Baina txekiar batentzat, errazagoa da poloniera gaztela-

nia baino. Familia berekoak edo antzekoak diren hizkuntzak (frantsesa eta italiara, esaterako) errazagoak dira hiztun horrentzat, abiapuntuan hurbil dagoelako.

Gainera, hizkuntza batzuk besteak baino zailagoak balira, hizkuntza hori erabiltzen duten umeei besteei baino gehiago kostatuko litzaieke hizkuntza ikastea; hori, guk dakigula bederen, ez da inon dokumentatu edo aurkitu. Guk dakigunez, mundu osoan hizkuntzaren jabeak antzeko erritmoan gertatzen da, eta ez dugu inoiz aditu «ez-dakit-nondarrek denbora gehiago behar dute hitz egiten ikasteko». Hala balitz, hizkuntza hori ez litzateke praktikoa izanen eta hizkuntzen arteko lehia ez luke aukerarik izanen, hizkuntzen arteko «hau-tespen naturala» ere ez luke pasako.

Egia da batzuetan –beste hizkuntza



bat ikasten ari garenean, batez ere-harrituta gelditzen garela hizkuntza jakin batek alderdiren batean (deklina-bidea, aditza...) duen konplexutasunarekin. Jakina, oso «zaila» irudituko zaigu. Baina egin diren ikerketek erakusten dute hizkuntzaren alderdiren bat sinpleagoa eta erregularragoa izan arren, ziur asko besteren batean konplexutasuna handiagoa dela, eta hizkuntza guztiak sinpletasun/konplexutasunaren arteko barne oreka bat mantentzen dutela.

Adibidez, hizkuntza batek bi bokal eta bi kontsonante bakarrik baleuzka, oso erraza izanen litzateke lau soinu horiek ikastea. Baina hain soinu gutxiarekin, hitz guztiak oso antzekoak izanen lirateke eta oso zaila izanen litzateke hitz asko ikastea; gainera, hitz ikaragarri luzeak sortu beharko lirateke esanahi ezberdinak biltzeko. Alderdi bateko sinpletasunak, ondorioz, sekulako zailtasuna ekarriko luke beste alderdi batean. Oreka hori da, beraz, era ezberdinetan hizkuntza guztiak bilatu dutena

### Hizkuntza handiak eta txikiak

Hizkuntza batzuek hiztun asko dituzte, eta beste batzuek gutxiago. Baina

hizkuntza bera ez da horregatik handiagoa edo txikiagoa. Hiztun gehien dituenena –Txinako mandarin hizkuntza-, ez da alemana baino handiagoa, adibidez, nahiz eta hiztun askoz gehiago izan. Eta ez da euskara baino handiagoa. Beraz, handiagoa dena hiztunen kopurua da, ez hizkuntza bera.

Esan beharra dago «handia» edo «txikia» esatea ez dela neutroa, nola-baiteko garrantzia edo prestigioa ematen baitio hizkuntzari. Lehenago ere esan dugu hizkuntzaren prestigioak edo prestigiorik ezak ere bestelako ondorioak izan ditzakeela. Zehatzagoa da hizkuntza batek hiztun gutxiago dauzkala esatea, baina gogoan izanda hiztun gutxiago izateak ez liokeela eskubiderik kendu behar hizkuntzari, ezta duintasunik ukatu behar ere.

Bestalde, zenbaitek uste dute hizkuntza batek zenbat eta hiztun gehiago izan, orduan eta aberatsagoa eta perfektuagoa izanen dela. Aberatsagoa, agian, hiztegiaren izanen da (baina soilik agian), baina egitura eta potentzial aldetik ez. Edozein hizkuntzak, oso hiztun gutxi izanda ere, ahalmena eta potentziala dauka gizakiaren behar guztiak asetzeko, behar bezala garatzen utziz gero.

Azkenik, kontuan izan behar da hiztun asko dituzten hizkuntzak askotan

barietate ugarian banatzen direla, eta elkarren artean ulertzeko zailtasun handiak sortzen direla: hizkuntza bat ote da, orduan, edo hizkuntza ezberdinez hitz egin beharko dugu? Arazo honek agerian uzten duena, azken batean, hau da: hizkuntza eta dialektoen arteko mugak oso labainkorak dira, eta normalean komeni zaigun moduan erabiltzen ditugu kontzeptuok.

### Hizkuntza primitiboak eta modernoak

Batzuk uste dute, baita esan ere, hizkuntza batzuk primitiboagoak direla. Jakina, buruan dituztenak Afrikako, Amazonaseko edo Australiako tribuen hizkuntzak dira. Uste dute ez direla hain hizkuntza eboluzionatuak, sinpleagoak direla, ez hain prezisoak... Hori guztia aurreiritzien eta ezjakintasunaren ondorioa da.

Hizkuntza horiek aztertu eta ezagutu dituzten hizkuntzalariek garbi esan eta erakutsi dute hizkuntza horien egitura besteena bezain aberatsa eta konplexua dela. Ustezko hizkuntza primitibo horien zenbait ataletan (aditza eta morfologia, esaterako), batzuetan sistema oso konplexuak agertzen dira, eta guk adierazi ezin ditugun gauzak adieraz ditzakete. Adibidez: hizkuntza





batzuetan, marka morfologiko baten bitartez (aditzaren barruan dagoen soinu jakin bat), adieraz daiteke esandakoa entzun den, ikusi den, norbaitek kontatua den, ustea besterik ez den... Oso ñabardura zehatzak egiteko balio duen sistema da, gure inguruko hizkuntza «modernoek», esaterako, ez dutena.

Garrantzitsuen zera da? Bada, hizkuntza guztiek balio dutela edozein gauza adierazteko, eta potentzial berbera dutela, aukera berberak dituztela. Hizkuntza guztiak dira oso sistema aberatsak eta eraginkorrak. Bestela, lehen aipatu dugun «hautespen naturalaren» ondorioz, desagertu izan ziren aspaldi.

## Kultur hizkuntzak

Hizkuntza batzuk kultur-hizkuntzak omen dira, eta beste batzuk ez. Hori ere, topikoa eta aurreiritzia. Izan ere, hizkuntza guztiek dute atzean kultura bat, eta, beraz, denak dira kultur-hizkuntzak. Kontua da batzuentzat kultura dela mendebaldeko zibilizazioa, literatura, testu idatziak eta zientzia, besterik ez. Baina kultura hori baino askoz gehiago da, eta herri guztietan garatu den ahozko literatura ere, adi-

bidez, Kultura da, maiuskulaz idatzia gainera. Ezin da, gure ustez, kulturen arteko hierarkiarik egin.

## Hizkuntza sinpleak eta konplexuak

Lehen azaldutako «primitibo/moderno» ideiarekin zerikusia du. Edozein hizkuntza, baita tribu galduenaren hizkuntza ere, gizakiaren sormenaren produktu zoragarria da, izugarritzko konplexutasuna duena.

Primitibotzat jotzen diren kultur eta herrien hizkuntzak, askotan, sistema eta egitura harrigarriak eta oso konplexuak erakusten dituzte. Kasu guztietan, hizkuntzak herri edo kultura horri balio dio bere bizitza egiteko. Eta bizimodua aldatzen bada, hizkuntza bera ere egokituko da, baduelako horretarako malgutasuna eta potentziala. Hizkuntza guztiek dute gaitasuna eta behar adina baliabide edozein gauza adierazteko, abstraktua nahiz zehatza, kulturala, metafisikoa edo teknologikoa.

## Herrialde batzuetan hizkuntzak ikasteko erraztasun handiagoa dute

Erraztasun handiagoa ez, daukatena behar handiagoa da. Beharrak bultzatzen ditu hizkuntzak ikastera, eta beharrak laguntzen die horretan. Beharrik ez duenak, normalean, ez baitu ikasten. Ezin da pentsatu herri edo komunitate batzuk berez besteak baino iaioagoak direnik hizkuntzak ikasteko, azkarragoak direnik, beste edozer gazararako ez diren bezalaxe. Guk, behintzat, gizakion eta herrien arteko berezko berdintasunean sinesten dugu. Inguruak, bizimodu jakin batek eta beharrak sortzen ditu ezberdintasunak.

## Ikasketak dituen jendeak hobeki hitz egiten du

Ikasketadunek, askotan araututako hizkuntz eredia hobeki ezagutzen dute eta hobeki erabiltzen dute. Baina ongi hitz egitea ez da araua betetzea, baizik eta egoera bakoitzean erabili behar den hizkera erabiltzea, barietate hori ongi erabiltzea, eta komunikazioa lortzea. Eta hori, esaterako, oso ongi egin daiteke eta egiten da, egoera askotan, etxean ikasitako hizkera erabiliz.



## aukeratu zuzena

### 1- Zenbat hezur dauzka pertsona batek?

- A. 351
- B. 206
- C. 109
- D. 406

### 2- Zenbat denbora behar du lurrak eguzkiaren inguruan buelta oso bat emateko?

- A. Lurra ez da mugitzen
- B. Mende bat
- C. Urte bete
- D. Egun bete

### 3- Zenbat «Italiako Giro» irabazi du Joane Somarribak?

- A. 2
- B. 3
- C. 1
- D. 0

### 4- Zer herritako hiriburua da Bishkek?

- A. Kirguistán
- B. Kurdistan

- C. Uzbekistan
- D. Tayikistan

### 5- Zein herritan jaio zen Jorge Oteiza?

- A. Altzuzan
- B. Oteizan
- E. Orion
- D. Gazteizen

### 6- Francis Ford Copollaren filmik eza-gunenetarikoa «Aitabitxia» da, eta denok dakizue «Vito Corleone»ren papera Marlon Brandok egiten zuena baina, «Aitabitxia II» filmean... Nork egiten zuen «Vito Corleone» gaztearen papera?

- A. Robert de Niro
- B. Leonardo Di Caprio
- F. Sean Penn
- D. Bill Murray

### 7- Zenbat neurtzen du Mandoegik?

- A. 1.125
- B. 968

- G. 1.045
- D. 1.146

### 8- Eta Hiru Erregeen Mahaiak?

- A. 2.506
- B. 2.327
- H. 2.109
- D. 2.428

### 9- Zer erreka ez dago Nafarroan?

- A. Ibaiuda
- B. Alhama
- I. Keiles
- D. Ezka

### 10- Euskal Herriko ze probintzitan dago biztanle kopuru handiena?

- A. Bizkaian
- B. Gipuzkoan
- J. Nafarroan
- D. Lapurdin

Erantzunak: 1 - B, 2 - B, 3 - B, 4 - A, 5 - D, 6 - F, 7 - A, 8 - B, 9 - I, 10 - B

## ezetz igarri

Mahaiako arauak direla eta ...

### 1- Nola jan behar dira zainzuriak?

- a - Labana eta sardeskarekin
- b - Sardeskarekin bakarrik
- c - Eskuekin
- d - Koilararekin

### 2- Jan daitezke zainzuriak labana eta sardeskarekin?

- a - Ez, edukazio txarrekoa da
- b - Bai, saltsa beroa gainetik dutenean
- c - Bai, latakoez ez direnean
- d - Ez, erabiltzekotan sardeskarekin bakarrik izango litzateke

### 3- Nola jan behar dira itsasoko txirlak?

- a - Sardeska edo bere txirlatik koilara balitz bezela
- b - Eskuekin eta ez zikintzen saiaturaz
- c - Txirla eskuekin hartzen da eta barruko zomorroa koilararekin

d - Labanarekin puskatuz

### 4- Zer fruta jaten dira labana eta sardeskarekin?

- a - Platanoa, kiwia eta mandarina
- b - Melokotoia, udarea eta arana
- c - Sagarra, udarea eta laranja
- d - Txirimoia, platanoa eta kiwia

### 5- Busti daiteke arrautzaren gorrin-goa?

- a - Ez
- b - Bai, baino ogia sardeskaren puntan dagoelarik
- c - Ez, baino formalak ez diren egoeratan egin daiteke
- d - Bai, ez egitea edukazio txarrekoa izango litzateke

### 6- Jan daitezke espagetiak koilara eta sardeskarekin?

- a - Ez, sardeskarekin bakarrik

b - Bai, biok ez erabiltzea ez litzateke zuzena izango

c - Ez, labana eta sardeskarekin jan behar dira

d - Ez, koilararekin bakarrik jan daitezke

### 7- Zuzena da fruten haziak putz eginez botatzea?

- a - Ez, irentsi egin behar dira
- b - Bai, batez ere platerera botatzea asmatzen duzunean
- c - Ez, xuabe-xuabe eskura erortzen uzten dira eta gero plateran utzi behar dira
- d - Ez, haziak jan baino lehen kendu behar zaizkie

Erantzunak: 1 - B, 2 - B, 3 - B, 4 - A, 5 - D, 6 - F, 7 - A

# letra zopa



Ea aurkitzen dituzun 7 izaki bizidunen izenak.

€	G	U	Z	K	I	A	Z	Z	R
R	P	P	T	M	D	F	A	I	H
B	S	R	K	K	T	B	K	A	A
I	H	P	A	G	O	A	U	A	R
A	A	I	R	€	A	L	R	T	T
L	N	N	S	X	P	D	R	M	Z
N	R	U	Z	O	Z	O	A	M	A
K	S	A	M	P	O	€	€	I	A
I	O	T	L	I	Z	A	R	R	A

Erantzunak:  
Erbia, Pina,  
Zakurra, Hartza,  
Pagoa, Zozoa eta  
Lizarra.

9 planeten izenak bilatu.

S	G	H	Y	O	N	T	R	S	€
A	I	N	M	A	R	G	M	I	Z
H	K	M	€	R	K	U	R	I	O
X	S	A	R	R	€	N	T	L	K
C	B	L	I	U	P	W	D	T	O
O	L	€	X	L	I	O	A	X	S
K	L	Z	N	O	B	T	S	Z	A
H	B	O	N	U	Z	U	I	H	T
€	X	A	I	G	S	D	€	K	U
L	R	€	J	U	P	I	T	€	R
U	T	I	B	L	Z	M	T	X	N
F	D	H	U	P	A	R	D	F	O
A	M	T	O	I	A	L	T	K	X
U	O	X	Z	M	B	H	Z	G	I
N	O	N	U	T	P	€	N	O	S

Erantzunak:  
Merkurio,  
Benua, Lurra,  
Marte, Jupiter,  
Saturno, Urano,  
Neptuno eta  
Pluton



# ZURE TXANDA



## Bakartxo

**Zein da gehien gorrotatzen duzun pertsonaia?**

Nere bazterren don hau momentu askotan.

**Eta gehien miresten duzuna ?**

Aldi beren mirestu ere bera itten dut gehien.

**Zein duzu gustokoena, ikasle garaiak edo oraingok?**

Oraingok, ze ordun asteburutan lana itten nun ta gor xamarra zen ajekin lanera jotera.

**Institutoko anekdotan bat?**

Eun baten linguako andereñoa hasi zen ikasle bakoitzak izandutako aldaketak aipatzen, ta aietu zen goizutarran filara ta san tzun: «ufff! Las de Goizueta. Ante todo, el pueblo unido jamás será vencido, todo lo hacen juntas, si falta una faltarán todas».

**Gaia aldatuz, zer dituzu nahiago, tangak o kulerok?**

Oaingo kulerok, biño urte berriko intako promesak bete ezkerio iol ikiarri metu ta tangak ibiltzeko modua izango dut. Ai!!! Biño hainbeste gustatzen tzit jatera....

**Tabakoa edo mutilak?**

Biek.

**Goizuetako ixiltasuna lasaigarria ala aspergarria da?**

Ixiltasuna ongi etortzen da biño gehiegi ez da komeni. Muimentua hobe, hori baita herria bizirik don seinale.

**Hemengo baserritarrak edo Hernani aldeko kalekumek?**


Hernaniko kalekumek goizutarren malizi eta naturaltasunakin.

**Bidai exotiko batera Oihanakin edo mutilan batekin?**

Dudik gabe Oihanakin, biño han mutilak ezautzera, noski.

**Amets bat?**

Zoriontsu izatera.



## Oihana

**Zein da gehien gorrotatzen duzun pertsonaia?**

Sanz, ezta ikusi nahi ere!!!

**Eta gehien miresten duzuna ?**

Nere ondoko bitxa hauxe.

**Zein duzu gustokoena, ikasle garaiak o oraingok?**

Ikasle garaiak oraingo boltsondokin.

**Institutoko anekdotan bat?**

Bufff!!! Goizutako «sardinerak» deitzen zигuten. Zentzu onen, dena dela.

**Gaia aldatuz, zer dituzu nahiago, tangak o kulerok?**

Tanga, leopardo zkoa ahal bada.

**Tabakoa edo mutilak?**

Ez bat ta ez beste, biek txarrak osasunantzat.

**Goizuetako ixiltasuna lasaigarria ala aspergarria da?**

Hemengo lasaitasuna gustatzen zait biño kanpoko zaratatik etorrita oraindik gustagarriago, hora ere ez baita txarra tarteka, ez?

**Hemengo baserritarrak edo Hondarribiko frantzesak?**

Frantzesak baserritarren abarkak ta zapela jantzita. Eleante!!!

**Bidai exotiko batera Bakartxokin edo mutilan batekin?**

Bakartxokin, dudik gabe, eh Bakí?

**Amets bat?**

Roke Feler bezain aberatsa izatera.